



AUMATEGI

HERRITARRAK, KONTZEJUEN MOTOREA.

Ezker Abertzaleak, Administrazio Batzordeetarako hauteskundeak pasa ostean, Arabako herrietako bizilagun guztiak animatu nahi ditu Kontzejuetako eguneroko lanean jarrai dezaten. Kontzejuak praktikara eramandako demokrazia partehartzaile eta zuzenaren adibiderik garbienak dira. Horregatik herritar guztiak animatzen ditugu bertan parte hartzera, ideologietatik haratago, herritarrena izan behar delako.

Kontzejuen eremua eta ez beste inorena. Betidanik defendatu du Ezker Abertzaleak alderdi politikoek ez dutela lekurik Kontzejuetan. Alderdi politikoek Kontzejuetik bete behar duten papera bestelakoa izan behar da -Udal, Koadrilla edota Biltzar Nagusietan- Kontzejuentzako finantziario justua eta bitarteko nahiko bermatzea, hain zuzen ere, Administrazio Batzordeetan herrien alde egiten den lana behar bezala garatu ahal izateko bermea, alegia.



Buletin honen edukiak:

HERRITARRAK, KONTZEJUEN MOTOREA.	Orr. 1,2
HAUTESKUDEEN EMAITZAK	Orr. 2,3
LEHEN SEKTORE IRAUNKORRA BULTZATU BEHAR DUGU	Orr. 4,5
UDAL INFORMAZIOA	Orr. 6
O.H.Z.REN IGOERA NABARMENA	Orr. 8
ONGI ETORRI ARKAITZ!	Orr. 9
EZKER ABERTZALEAK MARTXAN JARRITAKO EZTABAIDA AMAITZEAR DAGO	Orr. 10

aumategi@yahoo.es

Ondo dakigu Arabako Kontzejuak, orokorrean, egoera ekonomiko larrian daudela, are gehiago krisiaren eragina kontutan hartzen badugu. Krisia dela eta nabarmen egin du behera toki erakundeentzen finantziarioa eta Kontzejuetan, beti azkenak direnez, are handiagoa izan da murrizketa hori. Hori gutxi balitz beste instituzio batzuk ez dituzte Kontzejuak aintzat hartzen beraien politikak eta planak erabakitzerakoan baina Kontzejuetara betebeharrak ezartzen dizkiete, baita kosteak ere. Eta azkenik, hainbat gobernu krisiari aurre egiteko neurri bereziak planteatzen dituztenean Kontzejuak albo batera uzten dituzte.

Egoera larri honen aurrean dute alderdi politikoek erantzun beharra. Hori da Kontzejuetik bete behar duten ardura. Gure aldetik Udaletan zein Biltzar Nagu-



sietan ekimenak sustatzen jarraituko dugu. Baina Arabako erakundeentzen errealitatea zein den ezagututa zaila izango dela aurreikusi dezakegu. Eta zuek, herritarrek, jarraituko duzue herrietako motorena izaten, **zuen eguneroko lanak bultzatuko du herrien etorkizuna.**

HAUTESKUDEEN EMAITZAK

AUDIKANAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

López de Uralde Ruiz de Eguino, Carmelo 12

Castillo Alzola, José Antonio 4

Marcos Rapado, Enrique 4

DALLOKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Ruiz de Sabando Ibisate, Sergio 7

Beltrán de Heredia Inñiguez de Heredia, José Valentín 6

Ibarreta Ruiz de Eguino, Pedro 4

ELGEAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

López de Uralde Martínez de Soria, Carmelo 9

Uriarte Ibáñez, Roberto 7

Echebarria Beltrán de Otalora, Pedro 4

ETURAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Ruiz de Azua Saez de Arregui, Jose Carlos 16

Uriarte Arcauz, Francisco 12

Pico Pozueta, Julio 10

ETXABARRI-URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Arrizabalaga Ciaran, Andoni 21

Pérez de San Román Urteaga, Oscar 16

Martínez de Estibaliz Beltrán de Otalora, Juan José 10

GEBARAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Ganuja Ugalde, Luis 14
San Pedro Ruiz de Azua, Ángel María 12
Garrido Martín, Jesús 3

HEREDIAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Pérez de Arenaza López de Aberasturi, Serafín 7
Villar Martínez de Lizarduy, Santiago 7

Salgado García, Roberto 4

HERMUAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Lauzurica Maturana, Itziar 10

Zubia Arrieta, Ismael 7

Ugartondo Segura, Eva 6

LARREAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Arcauz Errasti, Benigno 24

Arcauz Errasti, José 20

Mendibil Ruiz de Infante, Rebeca 13

MARIETA-LARRINTZARKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Torres González, Roberto 21

Gorospe Sáez de Cámara, Elvira 18

Zabala Acha, María Pilar 10

MATURANAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Cuñado Molinuevo, Marcelo 10

González de Matauco López, Arturo 9

Uriarte Alzola, Natividad 4

MENDIXURKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Iriso Jiménez, Virginia 14

Fernández de Retana Martínez de Lizarduy, María 5

Sánchez Aranaz, Fernando 5

OZAETAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA-BOTOAK

Mendaza Pérez de Arrilucea, Javier 26

Uriarte Uriarte, Rodolfo 22

Jausoro Sáez de Cámara, Pablo 10

LEHEN SEKTORE IRAUNKORRA BULTZATU BEHAR DUGU

Kopenhagen (Danimarka) aldaketa klimatikoari buruzko mundu mailako gailurra egin dute; agintarien berekoikeriak, konpromezurik eta koherentziarik ezak hasiera-hasieratik porrotera bideratua zeukan gailurra eta azkenean, noski, porrot egin duena.

Aldaketa klimatikoa jada eragin handia ari da izaten mundu guztiko nekazariengan. Horregatik, une honetantxe, biziraupena bermatzearen aldeko apustu garbia egitea behar-beharrezkoa da.

Familia mailako nekazaritza eta abeltzaintza gorriak ikusten ari da aldaketa klimatikoak ekarri dituen ondorioak direla eta (uholdeak, lehorreak, ziklo aldaketak...), eta badakigu horrek berak zer ondorio dakartzkion eguneroko bizitzan lehen ere etorkizun garbirik ez duen eta lur jota dagoen Lehen Sektoreari.

Baina ez gaude politikarien huts egiteak eta euren erantzukizunik eza jasateko prest. Ez dugu mundu mailako botere politiko eta ekonomikoaren txotxongilo izan nahi, euren nahierara erabiliko dituzten txotxongiloak.

Ezer baino lehen, gogoan izan behar dugu negutegi efektua eragiten duten gasak neurri handi batean industria- nekazaritzak eta globalizatutako elikadura sistemak emititzen dituztela; eta eurak gas hauen emisio guztien %44 - 57 direla uste da.

Ingurumenarekin agresiboa eta gizatasunik gabekoa den nekazaritza ereduak eta arduratsua den nekazaritza eredu honek mozkin ekonomiko ikaragarriak ematen ditu eta nekazaritza-negozio bihurtu da. Gai da espekulazio- interesen arabera ekoizpena zein kontsumoa manipulatzeko.

Ekoizpen intentsiboa, elikagaien prozesatzea eta mundu guztian zehar banatuko diren elikagai horien garraioa dira egoera larri honen arrazoi nagusiak. Nekazaritza eredu honek airean gauzka hurbilekoa eta jasangarria den nekazaritza eta abeltzaintzan lan egiten dugunok; geu, ingurua, gure mendiak, geure lurra errespetatzen dugunok. Geuk mententzen ditugu bizirik geure herriak geure eguneroko lanari esker; eta hala ere, ia desagertzeko zorian gaude.

Etorkizuneko Lehen Sektoreak biziraungo badu, aurre egin beharko dio ekoizpen industrialari; eta ekoizpenetik hasi eta tokian tokiko kontsumoa bermatuko duen zikloa ixtea lortu behar du, hori baita elikadura-subiranotasuna.

Euskal Herrian bizi garenok ere geure elikadura-politika antolatzeke eskubidea daukagu, geure ekoizpenaren eta kontsumoaren inguruan erabakitzeke giltza izan-



go dugun elikadura-subiranotasun hori ezartzeko eskubidea.

Horrek, egunerokotasunean aplikatuta, sektoreari etorkizun duina bermatuko dio eta behingoan bere erabakien jabe izango den eta zer jaten duen jakingo duen azkeneko kontsumitzaileari ziurtasuna ere bai.

Politikariak ezer egiteko gai ez direla ikusita eta euren interes espekulatiboak aldaketarekin hartu beharko luketen konpromisoaren gaintik daudela ikusita, geuri dagokigu, nekazari eta abeltzainoi, irtenbideak aurkitu eta praktikan jartzea.

Lehen Sektore garen heinean, gai izan behar dugu geure familia mailako nekazaritza eta abeltzaintza nekazaritza-negozio korporatibo horietatik ateratzeko, geu bizitza osorako hipotekatzeaz gainera, gutxi batzuentzat etekina bakarrik bai baitakar.

Kontsumitzaile garen heinean, berriz, aukera egitea dagokigu, zer jan nahi dugun erabakitzea. Benetakoa, soziala izango den eta nekazaritza jasangarria eta enpresa handien espekulazioa kontrolatuta, tokian tokiko elikagaiak kontsumitzea bultzatuko duen nekazaritza-politika baten behar larria dago.

Ez ahantzi ahalik eta modurik onenean erabiltzen baditugu baliabideak, Aldaketa Klimatikoa geldiaraztea geure esku ere badagoela.

UDAL INFORMAZIOA

Udal-kiroldegia erabiltzeko araudia

Azkenean onartu da, 2009ko azaroaren 16ko Osoko Bilkuran, udal-kiroldegia erabiltzeko araudia, ia urtebeteko atzerapenarekin ezker abertzaleko zinegotziek proposamena egin zutenetik.

Araudi horrek udal-kiroldegiaren erabileraren inguruko hainbat alderdi arautzen ditu: baimendutako erabilerak, funtzionamendua, ikuskapenak eta abar. Besteak beste, adierazten du etengabe egongo dela irekita eta, garrantzitsuagoa dena, Barrundiako herritarrek lehentasuna izango dutela erabiltzeko orduan. Horretarako, erabiltzaile-txartela aterako da.

Ezker abertzaleko ordezkariak argien kontua arautzeko ere eskatu zuten, izan ere, edozeinek piztu ditzake eta doanekoa da. EAJko taldeak, ordea, ez zuen onartu. Kiroldegia erabiltzeko erreserba egiteko aukera ezartzeko ere eskatu zuten, baina gehiengoaren duen taldeak ez zuen hori ere onartu, *“Erreserbak udaletxean egiteak udal-bulegoetan dagoen lan-karga handia areagotu dezakeelako”* eta ez zaie-lako beharrezkoa iruditzen.

Etxebizitza-politika

Legegintzaldiko hirugarren urtea bete-tzeaz dagoela, Barrundiako EAJk ez dio oraindik erantzunik eman Barrundiarako zein eredu nahi duten erakusteko hain garrantzitsua den gai bati: ETXE-BIZITZA-POLITIKARI. Aurreko urteetan aurrekontu-atal bat onartu zuten etxebizitza-beharrei buruzko inkesta bat egiteko,

egon litekeen eskariari aurre egiteko lehenengo urrats gisa. Diru-atal hori, tamalez, ez zen gauzatu, eta 2010eko aurrekontuetan ez dute sartu (kasu honetan “errola” bat eskatzen zen, datu zehatzagoak izateko).

Barrundian bizitzen gelditu nahi duten gazteek ez dute behar, ez ustezko asmo onik, ez luzapenetan ibiltzea. Barrundiako herriak herri izaten jarraitzea nahi badugu, gazteak hemen bizitzen gelditzea nahi badugu, ezinbestekoa da etxebizitzaren arazoari aurre egitea berehala.

Línea elektrikoak

Gure lurretan gero eta linea elektriko gehiago egoteak gaitzespena eragin du jendartean, ekologiaren eta paisaiaren ikuspuntutik sortzen duten inpaktuagatik. Eztabaida hori gure udalera ere iritsi da, izan ere, EAJko taldearen aldetik ez da irizpide zehatzik egon, eta deigarri egin zaizkigun zenbait kontraesan izan ditu:

-Castejón-Muru Arterderreta / Ullibarri-Arrazua: 2007ko abenduan, ezker abertzaleko zinegotzien proposamenaren aurrean, EAJko taldeak ez zuen gaitzetsi nahi izan Castejón-Muru Arterderretatik (Nafarroa) Ullibarri-Arrazuara doan goitentsioko lineako proiektua,) Arabako Menditik eta Lautadatik igarotzen dena *“linea elektrikoa egiteko erabakia hartuta dagoelako eta kontra egiteak testigantza hutsezko ekintza delako”*. Hala ere, 2009ko azaroan iritziz aldatu eta linea horren aurka jarri ziren. Kasu honetan, aurka egiteko proposamena Kanpe-zuko Koadrilatik zetorren (EAJk kontrolatua).

-Iturrietako Mendiak / Zuhatzolako azpiestazioa: 2009ko uztailean, Udalak aho batez eman zion ezetza Iturrietako Mendietan egin nahi duten zentral eolikotik Zuhatzolako azpiestazio-raino joango litzatekeen goitentsioko linearen proiektuari.

-Zuhatzolako azpiestazioa/Agurain: Zuhatzolako azpiestaziotik Agurain ingururaino Herediako mendi eta lurretatik pasatuz egin nahi diren tentsio ertaineko bi linea berriei dagokienez, bai EAJk, bai ezker abertzaleko zinegotziek, ezezkoa eman diote dagoeneko egina dagoen linearen paralelo joango litzatekeen trazaketa bikoitzari (dagoeneko egina dagoena Zuhatzolako azpiestaziotik Heredia eta Zuhatzuko errepidea gurutzatzen duen unera arte doa). Baina puntu horretatik, beste linea bat egin nahi dute egina dagoena bukatzen den lekuraino, hau da, Aguraingo Galtzar poligonoraino, eta EAJk ez du linea horren aurka egin nahi.

Zuhatzolako azpiestazioa dagoen lekuan egonik eta sen ona gailentzen ez bada eta inork aurka egiten ez badu, txarrena da Barrundiako inguru horrek linea elektrikoaren amaraun baten itxura har dezakeela.

2010eko udal-aurrekontuak

Edozein udaletan, aurrekontuek politika planifikatzeko tresna nagusia izan beharko lukete, baina Barrun-

dian ez da hori gertatzen. Aitortzen dute iazkoen antzekoak direla, eta hori egia da. Baina bada iazkoaren antzeko beste kontu bat ere: EAJren borondaterik eza ezker abertzaleko zinegotziek egindako edozein proposamen edo zuzenketa onartzeko. Deigarria da zuzenketa eztabaidatzen hasi aurretik ez dela ezer aldatuko esatea, eta are deigarriagoa zuzenketa eztabaidatzeko argudiorik ez izatea, zenbaitekin ados egon litezkeela esateraino.

Datuei dagokienez, 2010eko aurrekontuak 1.334.709 eurokoak dira. Esan behar da Udalaren finantza-egoera ona dela krisia gorabehera, izan ere, “aurrezki arrunta” deiturikoa (sarrerak ken gastu arruntak) 163.964 eurokoa da.

Inbertsionetan egingo diren gastu nagusiak Iduia Jauregia birgaitzeko, landa-bideak egokitzeko eta haur-eskola egiteko izango dira.

Bidezkoa da aitortzea, baita ere, euskararen aldeko gastuetan Udala ondo ari dela. EAJk egin behar duen hurrengo urratsa da *“dena euskararentzat baina euskararik gabe”* leloa - Ilustraziokoa parafraseatuz- albo batera uztea, bai baitirudi hori ari direla aplikatzen.

Sarrerei dagokienez, hiri-lurreko ondasun higiezinaren gaineko zergatik datozenak dira gehien handitu direnak, 86.776 eurotik 127.444 eurora pasatu baitira, hau da, % 46,8 gehiago.

Aitzitik, toki-entitateak finantzatzeko foru-funtsen kasuan, aurreikusitako sarrerak gutxitu egin dira berriro, iaz baino gutxiago bada ere (% 7 gutxi gorabehera, aurrekontuen arabera).

Gehiago zehaztuta, hona hemen zenbait datu:

GASTUAK:

-Bideak egokitzeko lanak: 400.000 € (honekin aurrekontua asko hazten da, baina % 60 Foru Aldundiak ordaintzen du -240.000 € eta % 20 kontzejuek -80.000 €).

-Iduia Jauregiaren birgaitzea, III. fasea: 168:078 €

-Aguraingo ikastetxeetako gastuak: 35.000 €

-Haurreskola: 7.777 €

-Administrazio-Batzordeen gastu orokorretarako diru-laguntza:

86.176 €

-Herrietako jaietarako diru-laguntzak: 12.000 €

-Putzu septikoak garbitzeko diru-laguntzak: 11.600 €

-Gazte Eguna: 4.000 €

-Erretiratuen eguna: 3.200 €

-SGAEen "eskubideak": 601 €

-Langileen soldatak: 111.325 € (aseguruak kontuan hartu gabe)

-Zinegotzientzako dirua: 24.132 € horietatik 11.582 € alkatearentzat dira.

SARRERAK:

-Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (landa-lurzorua + hiri-lurzorua): 160.394 €

-Kategoria Bereziko Ondasun Higi-

ezinen gaineko Zerga (urtegia eta zentral eolikoa): 112.880 €

-Ibilgailuen gaineko zerga: 47.934 €

-Zabor-tasak: 16.429 €

-Hirigintza-lizentziak emateagatiko tasak: 3.600 €

-Toki-entitateak finantzatzeko foru-funtsak: 239.065 €

-Hirigintzako gainbalioak: 35.000 €

-Zentral eolikoaren kanona: 13.511€



Iraindu daiteke egia esanez?

Berriro ere, alkateak iraingarritzat jo ditu AUMATEGI buletineko edukiak (Barrundiako ezker abertzaleak udaleko informazioa eta bere iritzia zabaltzeko argitaratutako tresna). Gaineratzen du gure aldizkarian argitaratutakoak erdi-egiak direla.

Argi dagoena da buletin hauetan argitaratzen dena zehatza eta egiaz-tatua dela -ahaztu gabe batzuek uste duten baino jende gehiagok parte hartzen duela idazten, itzultzen eta banatzen-. Eta bestela, frogatu dezatela behingoz esaten dutena.

O.H.Z.REN IGOERA NABARMENA

Jakina den bezala, duela gutxi, Foru Aldundiak Barrundiako landa eta hiri ondasun higiezinaren inguruko datu eta katastro-balioak eguneratzen bukatu du. Landa-ondasunetan balioak ez dira asko aldatu; baina hiri-ondasunetan katastro-balioaren igoera esanguratsua izan da, askoz handiagoa lurzorua balioan erai-kinetan baino. Aldundiak balioen pon-tentzia onartu eta gero, Barrundiako Udaltzako ezker abertzaleko zinegotz-ien kontrako botuarekin, O.H.Z.-ren (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga) ordenantzen aldaketa onartu zuen kargaren tasa zehaztu ahal izateko.

Prozesu honek guztiak berri txarrak ekarri ditu Barrundiako hiritarrentzat zerga horren igoera ikaragarria dela eta. Izan ere, "karga-tasa" ondasunen katastro-balioaren igoerari egokitzeko jeitsi egin bada ere, azkenean %0,15ean utzi zen. Hori dela eta, hiri O.H.Z.-ren batez-besteko igoera %46,8-koa izango da 2010-eko aurrekontuetarako egin den sarreren aurreikuspeneko datuei begiratzean ematen duenaren arabera. Igoera hau ez da guztiontzat berdina izango. Batzuen-



tzat gutxi suposatuko du oso, baina beste batzuentzat neurritz-kanpokoa da, %100-ekoa baino ere gehiagokoa kasu batzuetan. Gehiegizkoa zalantzarik gabe krisi garai hontan.

Ezker abertzaleko zinegotzien jarrera zerga hau batez-beste %10-a baino gehiago ez igotzea izan zen (karga-tasa minimoa den %0,10-tik gertuago ezarrita lortu daiteke hori), eta Udaletxearen politika fiskala birpasatu dadila, zergak asko dutenek edo espekulatzen dutenek ordaindu ditzaten, Plusbalioen gaineko Zerga, adibidez.




ONGI ETORRI ARKAITZ!

Heldu den Abenduaren 12an Arkaitz Martinez de Alb niz, preso politiko barrundiarra, aske gelditu zen, SEGiko kide izatearen akusaziopean kondena osorik bete ondoren.

Arkaitz 2002an Polizia Nazionalak atxilotu zuen, Garzon epaileak gazte mugimendu independentistaren aurka buruturiko hamaika sarekadetako batean. Orduan 19 urte besterik ez zeukan gazte hau Madrilgo Alcalá-Mecoko presondegian sartu egin zuten prebentibo moduan (alegia, inongo epaiketarik izan gabe). Gartzelaratzeko prebentibo honek 3 urte eta 2 hilabete iraun zituen Arkaitzen kasuan, etxetik 400 kmtara dispertsatua. Legearen arabera salbuespen neurria izan beharko lukeen “gartzelaratzeko prebentiboa”, preso politikoen kasuan modu sistematiko batean aplikatzen da. Epaitua izan ondoren, kalera atera zen, Auzitegi Nazionalean 2 urte t’erdiko epaia jaso ondoren. Beste hogeina gazterekin batera ETAko kide izateagatik eseri ziren akusatu bezala aipatutako epaitegian, manifestazioetara joatea edo ta bileretan partehartzea bezalako frogak “absurduekin”.

Fiskaltzak ordea, Auzitegi Nazionalako sententziari helegitea jarri zion eta Estatuari arrazoia eman zion Auzitegi Gorenak; Jarrai, Haika eta Segi erakundeak terroristatzat izendatu baitzituen eta beraz, akusatuei 6 urteko zigorrak ezarri zien. Urte t’erdi kalean igaro ostean, berriro kartzelara kondena osorik betetzeko. Oraingoan, Burgosen sartu egin zuten, bere etxetik 150 kmtara. Abenduaren 12an askatasuna berreskuratu zuen 27 urterekin.

Barrundiar honen kasua, gure herriko milaka seme-alaben egoeraren islada besterik ez da, DEMOKRAZIA hitzari benetako zentzua eta edukia eman nahi dioten “demokraziaren seme-alabetako” bat besterik ez da Arkaitz. Izan ere, momentuz, demokrazia (espainiarra) hitzak ilegalizazioa, tortura, dispertsioa, isolamendua,... besterik ez da gazte guzti hauentzat.



EZKER ABERTZALEAK MARTXAN JARRITAKO EZTABAIDA AMAITZEAR DAGO

2009-2010 kurtso politikoaren hasieran Ezker Abertzaleak izaera estrategikoko eztabaida martxan jartzea erabaki zuen. Hausnarketaren helburua fase politikoaren eta strategiaren argipena burutzea izan da. Bide honetan egungo ukazio egoeratik eskubideen aitortza egoera batera igarotzeko, zein izan daitekeen estrategia eraginkorrena eztabaidatzen ibili gara.

Hausnarketa horren garapenean Ezker Abertzaleak egungo egoera politikoaren gakoak jarri ditu mahai gainean. Batetik, Euskal Herriaren aldeko borrokan azken 30 urte hauen ostean, Euskal Herrian aldaketa politikoari ekiteko une egokia da. Euskal Herriaren lurraldetasunaren eta erabakitze eskubidearen onarpenean oinarritutako aldaketa politikoa. Bestetik, egun blokeo egoera batean gaude murgilduta eta Estatuarekin dugun aurrez aurreko borroka horretan ditugun parametroetan ezin gauza daiteke aldaketa politikoa, ezinezkoa baita aurrera egitea. Eta egoera honetan argi eta garbi dago Ezker Abertzaleak aldaketa fase hori gauzatzeko estrategia berritua eta eraginkorra behar duela.

Egun aldaketa politikoa burutzeko, Ezker Abertzaleak Prozesu Demokratikoaren aldeko apustua mahai gainean jartzen du. Prozesu Demokratikoa eraiki eta garatu ahal izateko, aldaketaren alde dauden sektore independentista eta soberanistak biltzea ezinbestekoa da. Sektore herritar hauen metatzeak eta aktibazioak aldaketa politikoaren alde gehiengo sozial eta politiko bat artikulatu behar du. Zentzu honetan indar korrelazioaren aldaketa lortzea oso garrantzitsua da, azken finean indar korrelazioaren arabera aldaketa zentzu batean edo bestean eman daitekeelako.

Ezker Abertzaleak abian jarri nahi duen Prozesu Demokratiko hori, aldaketa gauzatzeko tresna eraginkor bat edukitzeak suposatzen du. Prozesu Demokratikoak errespetatu egin beharko du euskal gizarteak adierazi eta erabakitzen duena, eta prozesua biolentziarik gabe eta inork horretan eskurik sartu gabe gauzatu beharko da. Prozesu Demokratikoak aurrera egiteko eta bere helburuak lortzeko bermerik handiena aldaketa politikoaren aldekoa izan behar duen herritar gehiengo independentista aktibatzean datza.

Beraz, Ezker Abertzaleak burutu duen eztabaida prozesua amaitzear dago, jarraian ondorioen berri izan beharko dugu eta aurrerantzean guztion parte hartzea ezinbestekoa izango da.